

Kirola eta ekonomia soziala: hurbilketa kirolaren hirugarren sektorerara, Gipuzkoako txirrindularitzaren ikuspegitik¹

*Sport and social economy:
An approach to the third sector of sport
from the perspective of cycling in Gipuzkoa*

Luken CARBAYEDA URRUZOLA*,
Alberto DÍAZ DE JUNGUITU GONZÁLEZ DE DURANA

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoako Atala). Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena: Lan honetan kirolaren eta ekonomia sozialaren arteko konexioa aztertu nahi izan dugu. Horretarako, kirola eta kirolaren antolaketa-egitura ulertzen saiatu gara Espainiar Estatuaren markoan. Era berean, aztertu nahi izan dugu ea Gipuzkoako kirol-federazioak, klubak eta elkarteak integratu ote daitezkeen ekonomia sozialeko ikusmolde nagusietan.

Egoeraren aurretiko azterketa egin ondoren, ikerketa enpirikoa egin dugu: kirolaren hirugarren sektorea (aurrerantzean KHS) ikertu dugu Gipuzkoako txirrindularitzaren perspektibatik. Horretarako, metodologia kualitatiboa erabili dugu; hain zuzen, banakako elkarrizketa erdi-egituratuak egin dizkiegu ikerlariak sei adituri. Ikerketan ondorioztatu dugu garrantzitsua dela KHSa esploratzea, oraindik ere ikerketa-lerro hasiberria delako. Gainera, hiru sektoretan bereizita, kirolaren antolaketa-egitura baliozkotu dugu, nahiz eta tentsioa hauteman haien artean. Horrez gain, Gipuzkoako txirrindularitzaren ikuspegitik kirolaren antolaketa egituraren alderdi kritikoak ere azaleratu ditugu. Bukatzeko, iradoki dugu ekonomia sozialak eta kirolaren hirugarren sektorearen deiturak lagundu egin dezakeela Gipuzkoako txirrindularitza-federazioa, klubak eta elkarteak eraberritzen.

Uste dugu artikulua hau interesekoa izan daitekeela kiroleko edota ekonomia sozialeko adituentzat, administrazio publikoetako kirol-arduradunentzat eta baita KHSko erakundeentzat ere.

Hitz gakoak: Kirola, ekonomia soziala, kirolaren hirugarren sektorea, Gipuzkoa, txirrindularitza.

Abstract: This paper aims to analyze the connection between sports and the social economy. To do so, we examine the organizational structure of sports in Spain and assess the potential for integrating sports federations, clubs, and associations within various frameworks of the social economy.

Following this analysis, we conducted a regional empirical study focusing on the third sector of sports, with an emphasis on cycling in Gipuzkoa. Using a qualitative approach, we conducted semi-structured interviews with six experts on the topic. Our findings suggest that investigating the third sector of sports is essential, as it represents a developing area of research. Additionally, we have affirmed the tripartite organizational structure of sports, even as significant tensions persist among its sectors. By concentrating on cycling in Gipuzkoa, we have identified key issues within the sports organizational framework and propose that incorporating social economy principles and third-sector concepts could help transform the region's sports federations, clubs, and associations.

This article may be of interest to experts in sports and social economy, sports managers within public administrations, and third-sector sports organizations.

Keywords: Sport, social economy, third sector of sport, Gipuzkoa, cycling.

Deskribatzaile alfanumerikoak Econlit: Z2 Sport economics, B55 Social economics, P48 Regional Studies.

¹ Ikerketa lan hau UPV/EHUko Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioan Masterraren Amaierako Lana da. 2024. urteko uztaillean defendatuta, aldizkari zientifikoan argitaratzeko mol-datua izan da. Egokitzapen horrengatik, soilik ikerketako eduki garrantzitsuenak daude artikuluan.

* **Correspondencia a/Corresponding author:** Luken Carbayed Urruzola – luken.carbayed@ehu.eus – <https://orcid.org/0009-0001-0918-5836>

Cómo citar/How to cite: Carbayed Urruzola, Luken; Díaz De Junguitu González De Durana, Alberto (2025). «Kirola eta ekonomia soziala: hurbilketa kirolaren hirugarren sektorerara, Gipuzkoako txirrindularitzaren ikuspegitik», *GIZAERKOA - Revista Vasca de Economía Social*, 22, 11-33. (<https://doi.org/10.1387/gizaekoa.27132>).

Recibido: 27/11/2024; aceptado: 9/12/2024.

ISSN 1698-7446 - eISSN 2444-3107 / © UPV/EHU Press



Esta obra está bajo una licencia

Creative Commons Atribución-NoComercial-SinDerivadas 4.0 Internacional

1. Sarrera

Kirolak hedapen handia izan du azken hamarkadetan gure gizartean. Hasieran, herritar gutxi batzuek egitetik, edonori gomendatutako jarduera fisikoa izatera heldu da. Garapen horrek aldaketa adierazgarriak ekarri ditu kirola ulertzeko eta antolatzekeo eran, eta gizarteko beste zenbait esparruk bezala, kirol-erakundeek ere erronka dute egungo testuingurura egokitzekeo, aldakorra eta ziurgabetasunez betea. Tartean dira XIX. mendetik kirola antolatzekeo hegemonia izan duten kirol-erakundeak.

Bestalde, egungo gizartean, lehentasun ekonomikodun erakundeak ez ezik, badira helburu sozialak erdigunean dituztenak ere. Ekonomia soziala, bada, helburu horietako hainbat biltzen, antolatzen eta definitzen saiatzen da.

Lan honetan, kirolaren antolaketa-egituraren eta ekonomia sozialaren arteko harremanean sakondu dugu. Hori lortzeko, bi kontzeptuak ezagutzeko, ulertzeko eta elkarren arteko harremana eraikitzekeo saiakera egin dugu lehendabizi. Ondoren, ikerketa enpirikoa diseinatu dugu Gipuzkoako txirrindularitzarako; metodologia kualitatiboa erabili dugu; hain zuzen, banakako elkarriketa erdi-egituratuen teknika. Ikergaiko sei aditu izan dira elkarriketatutak, eta horrela, aurretiaz gureganatutako ezagutza kontrastatu, osatu eta aberastu dugu.

Azkenik, ikerketa osoaren emaitzak ondu ditugu hiru sail nagusitan: lehenik, ikerketa-lerroaren garrantzia; bigarrenik, hiru sektoreko antolaketa-egitura; eta azkenik, kirolaren hirugarren sektorearen zentzua Gipuzkoako txirrindularitzarentzat. Artikulua bukatzekeo, ondorio orokorrak mahaigaineratu ditugu.

2. Kirolaren antolaketa-egitura

Kirola definitzea zaildu egin da gaur egun, ia ezinezkoa izateraino (Solar, 2022). Izan ere, desadostasunak daude kirolaren definizioan, bai dokumentu arautzaileetan, eta baita hainbat herrialdetako lan zientifikoetan zein literatura grisa deritzanean ere. Ondorioz, zedarritzearen arazoa aktiboki eztabaidatzen da komunitate zientifikoan (Sutula, 2018).

Testuinguru honetan, Europako Kontseiluak argitaratua du Kirolaren Europako Gutuna. Erreferentziazkoa da Europar Batasuneko politike-tarako. Izan ere, gutunak arautzen duenez, berau jarraituta egin beharko lituzkete estatu kideek euren kirol-legeak, baita tokian tokiko gobernuek ere. Azken eguneratzea 2021. urtean argitaratu zen: III. Kirolaren Europako Gutuna, Ministro-Batzordearen CM/Rec(2021)5 gomendioa, Kirolaren Europako Gutun Berrikusiari delakoaren baitan. Bertan, honela

dago definitua kirola: «Gutun honen ondorioetarako, parte-hartze informal edo antolatuen bidez egoera fisikoa eta ongizate mentala eustea edo hobetzea, harreman sozialak osatzea edo maila guztietako lehiaketetan emaitzak lortzea helburu duten jarduera fisiko motak guztiak kirola dira»².

Europako Kontseiluak esandakoari jarraituta, lanean zehar kiroltzat ulertuko ditugu kultura fisikoari buruzko adierazpen guztiak, eta ez dugu mugatuko mendealdeko banaketa modernoetara; alegia, jarduera fisikoa, ariketa fisikoa eta kirola banatzera.

Izan parte-hartze informala, izan antolatua, egungo gizartean kirola ulertzeko giltzarri dira interes-taldeak (Solar, 2022). Kirolaren Europako Gutunak (2021) garrantzitsu jotzen ditu kirola gizarteratzeko eta sustatzeko, eta hiru bereizten ditu: botere publikoa, kirol-mugimendua eta enpresa- eta lanbide-sektorea³.

Lehendabizi, Gutunak dio botere publikoen zeregina kirol-mugimenduaren eta enpresa-sektorearen osagarri izatea dela, kirola garatzeko beharrezko baldintzak eta, hala badagokio, betebeharrak juridikoak ezartzeko arduradutako.

Bigarrenik, kirol-mugimenduak gobernu kanpoko eta irabazi asmorik gabeko kirol-erakundeak direla ezartzen du. Antolakunde horiek dira botere publikoen bazkide nagusia kirolaren inguruko erabakiak hartzeko. Bereziki babestu behar dute erakunde horietako boluntarioen lana, erabakitze mekanismo autonomoak izan behar dituzte eta demokratikoki aukeratu behar dituzte beraien arduradunak.

Azkenik, enpresak eta lanbide-sektoreko enpresak daude. Parte hartzen dute sektore horietako erakunde jarduerak, ekitaldiak edo lehiaketak antolatzen, kirol-artikuluak ekoizten, elikaduran, instalazioak eraikitzen, zerbitzuak ematen edo komunikabideetan. Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar dugu Gutunak printzipioak eta gomendioak baino ez dituela ezartzen Europar Batasunean kirola sustatzeko eta garatzeko. Ondoren, estatu kide bakoitzari dagokio kirola antolatzeko legeak eta egiturak sortzea.

Espainiar Estatuaren kasuan, hiru sektoretan banatzen dute kirolaren antolaketa-egitura Lera-Lópezek eta Lizalde-Gilek (2013), hots, sektore publikoan, elkartegintzako sektore pribatuan eta merkataritzako sektore pribatuan. Hortaz, sektore publikoaz gain, bi sektore pribatu bereizten di-

² Aipu originala: *“For the purpose of this Charter, ‘sport’ means all forms of physical activity which, through casual or organised participation, are aimed at maintaining or improving physical fitness and mental well-being, forming social relationships or obtaining results in competition at all levels”.*

³ Kirolaren Europako Gutunak (2021) erabilitako jatorrizko deiturak, hurrenez hurren: *public authorities, the sport movement, corporate and professional sectors.*

tuzte: elkartegintzakoa eta merkataritzakoa. Bien arteko aldea da lehenen-
goa irabazi asmorik gabekoa dela eta bigarrena, aldiz, irabazi asmokoa.

Espainiar Estatuko kirolaren antolaketa-egitura aztertzeko erreferent-
zia nagusia Lera-Lópezen eta Lizalde-Gilen (2013) argitalpena hartu arren,
hiruko banaketa gehiago ere identifikatu ditugu kirolaren literaturan: So-
larrek (2022) «administrazioa edo lehen sektorea», «industria edo bigarren
sektorea» eta «elkartegintzako sektorea edo hirugarren sektorea» bereizten
ditu. Bestalde, Scheeder et al.-ek (2015) «gobernuko» erakundeen mult-
zoa, «tartekoena», eta «gobernuz kanpoko» erakundeen multzoa banatzen
ditu, azken horretan, «irabazi asmodun erakundeak» eta «irabazi asmorik
gabekoak» banatuta.

1. Taulan kirolaren antolaketa-egituraren sintesia erakusten da erre-
ferentzia Lera-López eta Lizalde-Gil (2013) izanda. Hiru sektoretan ba-
natuta daude erakundeak edo kolektiboak. Horretaz gain, hiru jardue-
ra-eremu geografikotan banatua dago, erakunde bakoitzaren eskuduntzen
arabera. Irudi hau kirolaren antolaketa-egituraren plano orokorra baino ez
da, eta ez du kasuan kasuko ñabardura guztiak integrazteko jomugarik.

1. Taula

Espainiar Estatuko kirol-antolaketa-egitura hiru sektoretan.

	Sektore publikoa	Elkartegintzako sektore pribatua	Sektore pribatu komertziala
Estatua	Hezkuntzaren, Lanbide- -Heziketaren eta Kirola- ren Ministerioa	Espainiako Batzorde Olin- pikoa (COE)	Kirolaren industria Kirol-zerbitzuetako enpresak, fitness- -zentroak eta gimna- sioak
	Kirol-Kontseilu Gorena (CSD)	Kirol Olinpikoaren Elkar- tea	
		Estatuko federazioak	
Erkidegoa	Autonomia- erkidegoak / kirola dagokion Saila	Erkidegoko federazioak	
Tokikoa	Aldundiak / Kirol- Zu- zendaritza	Lurralde Historikoetako federazioak eta Kanariar Uharteartekoak	
	Udalerriak	Kirol-klubak eta kirol-el- karteak	

Iturria: egileek egina Lera-López eta Lizalde-Gil (2013) erreferentzia izanda.

Deiturak askotarikoak izanagatik, kirolaren gaineko literatura zientifikoa aztertuta, zentzuzkoa dirudi pentsatzea kirolaren hirugarren sektorea, egon, badagoela. Sektore bakoitzaren nolakotasuna ulertzeko, honako azpiataletan aztertuko dugu sektore bakoitza sakonago. Batez ere, sektore bakoitzeko erakundeen edo kolektiboen ezaugarriak azalduko ditugu.

2.1. *Sektore publikoa*

Konplexua da, Espainiar Estatuako sektore publikoko kirolaren egitura-antolaketa politikoki deszentralizatua izanik. Hiru maila nagusi bereizten dira: estatukoa, erkidegoetakoa eta tokikoa (Lera-López eta Lizalde-Gil, 2013):

—Estatua: CSD da Espainiako kirolaren gobernu-organo nagusia, zuzenean dago Hezkuntzaren, Lanbide-Heziketaren eta Kirolaren Ministerioaren menpe. CSDk du estatuko erabakiak kontrolatzeko ardura. Erantzukizun batzuk, deszentralizazio-politika medio, autonomia-erkidegoekin koordinatuta egiten dira.

—Erkidegoa: autonomia-erkidegoek erantzukizun oso garrantzitsuak dituzte kirola sustatzeko eta bultzatzeko. Beraien eginkizunak dira, hala nola, kirola hainbat mailatan arautzea eta antolatzea, kirol-zerbitzuak kudeatzea, lurralde-federazio eta klubak onartzea eta gainbegiratzea eta lehiaketak antolatzea.

Antzekoa izanagatik, garrantzitsua da jakitea kirolaren antolaketa administratiboa ez dela berdina erkidego guztietan, batetik bestera ezberdintasunak baitaude. Oro har, kirol-zuzendaritza bat egon ohi da, eta sarritan, beste zuzendaritza batzuekin batera osatzen da saila.

—Tokikoa: Espainiar Estatuaren kasuan, bereizi egin behar dira tokiko erakundeak; probintziak edo Lurralde Historikoak izan daitezke, baita udalerriak ere.

Erkidegoen eta udalerrien tarteko organo horiek erantzukizun partikularrak dituzte kasuan-kasuan (Lera-López eta Lizalde-Gil, 2013). Oro har, ez dute kudeaketa zuzena egiten, eta udalek finantzatzen dituzte. Eginkizun nagusien artean daude, besteak beste, bai kirol instalazioak eraikitze eta finantzatzeko laguntza ematea, bai has-tapeneko eta garapeneko kirol-eskolak garatzea eta sortzea (Puga-González, 2018).

Aurreko bi kasuetan ez bezala, udalek zuzenean kudeatzen dute kirola. Goragoko botere publikoen diru-laguntzak jasotzen dituzte, eta udalek dute ardura, batik bat, herritarrentzako kirol-zerbitzua

eskaintzeko. Udalerriek bultzatu izan dute kirol-jarduera, nagusiki, eta beraien gain izan dute kirol-eskubidea kudeatzeko lana, «guztionezako kirola» deiturikoa (Teruelo, 2012).

2.2. *Elkartegintzako sektore pribatua*

Kirolaren Europako Gutunak elkartegintzako erakundeak hartzen ditu botere publikoen bazkide nagusitzat. Espainiar Estatuan bazkide izaera hori egikaritzeko, izaera administratiboko funtzio publikoak esleitzen zaizkie Espainiako kirol-federazioei, horrela daude jasota 1835/1991 Errege-Dekretuan, abenduaren 20koan, Espainiako Kirol-Federazioei buruzkoan.

Abenduaren 30eko Kirolari buruzko 39/2022 Legearen arabera, elkartegintzako erakundeek oinarri asoziatiboa dute, eta pertsona fisikoek edo pertsona juridikoek osatzen dituzte. Izatearen helburu nagusi kirol-jardueretan parte hartzea, kirola egitea edota sustatzea dute. Kontuan izan behar da aipatutako araubidearen menpe daudela; Kirolari buruzko 39/2022 Legearen menpe, alegia. Horretaz gain, CSDren tutoretzapean daude sektoreko erakunde guztiak ere.

Bi motatako erakundeak bereizten dira. Batetik, lehen mailakoak: norbanakoak osatzen dute antolakundea, eta kirol-klubak edo kirol-elkartek dira. Erakunde horiek, bestetik, elkartu eta bigarren mailako taldeak osatzen dituzte: askotariko federazioak, ligak, txapelketak edo bestelako taldekatzeak.

Banaketa hori horrela, elkartegintzako sektore pribatuko erakundeak aztertuko ditugu, 1. irudian adieraziak, bigarren mailako taldeetatik ekinda. Hasteko, Espainiako Batzorde Olinpikoa (COE, *Comité Olímpico Español*) irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatua da. Nortasun juridikoa du, eta bere estatutuek eta araudiak arautzen dute, Nazioarteko Olinpiar Batzordearen (IOC, *International Olympic Committee*) printzipio eta arauen arabera, nazioarteko erakunde hori baita COEren jarduerak zaintzeko eta kontrolatzeko arduraduna (Puga-González, 2018).

Kirol Olinpikoen Elkarteak (*Asociación de Deportes Olímpicos, ADO*) 1988. urtean sortu zen. Diziplina olinpikoen beharrei erantzuna emateko programak dira, entrenamenduek eskatzen duten ahalegin fisikoari, behar ekonomikoari eta laguntza teknikoari, hain zuzen ere. ADO hiru bazkide fundatzailek osatzen dute: Radio Televisión Españolak, COEk eta CSDk (Puga-González, 2018).

Espainiako kirol-federazioak erakunde pribatuak dira, nortasun juridiko propioa dutenak. Kontuan izan behar da federazioek barne hartzen dituztela kirol-erakundeak, kirolariak, teknikariak eta epaileak (Lera-López

eta Lizalde-Gil, 2013). Kirol-federazioen eredia banakako (pertsonak) zein taldekako (erkidegoko edo probintziako federazioak, kirol-klubak zein elkarteak) inskripzioan oinarritutako elkarte fenomeno da (Scheerder, Willem, Claes eta Billet 2015).

Federazio horiek CSDren diru-laguntzak jasotzen dituzte, baina ez aurretik akordiorik lortu gabe; federazioen helburuei, kirol-programei, proposamenei eta egitura organikoari buruzko adostasuna lortu ondoren, bai-zik. Horrez gain, kirol-klubetatik bildutako afiliazio sarrera (Puga, 2018), eta babesle pribatuengandik ere jaso dezakete finantzaketa (Scheerder et al., 2015).

Kirol-modalitate bakoitzari dagozkion espezialitateak gobernatzeko, antolatzeko eta arautzeko ardurez gain, Espainiako kirol-federazioek honako jarduerak betetzen dituzte (Cuchi, 2005):

- Autonomia-erkidegoetako federazioekin elkarlanean aritzea, haien kirol-modalitateak Estatu osoan sustatzeko.
- Autonomia-erkidegoetako federazioekin lankidetzan, goi-mailako kirolariak prestatzeko planak diseinatzea, egitea eta gauzatzea.
- Estatuko administrazioarekin eta erkidegoetakoekin lankidetzan aritzea, izan kirol-teknikariak prestatzen, izan kirolean debekatutako substantziak eta arauz kanpoko metodoak prebenitzen eta kontrolatzen.
- Estatuko lurraldean egiten diren nazioarteko lehiaketa ofizialak antolatzea edo babestea.
- Kirol-elkarteei eta entitateei ematen zaizkien diru-laguntzen kontrola egitea, CSDk finkatzen dituen baldintzetan.

Autonomia-erkidegoetako federazioak, era berean, kirol-elkarte pribatuak dira, jarduera-eremua beraien erkidegoaren lurraldea izanik. Nor-tasun juridiko propioa dute, eta autonomia-erkidegoek emandako arauen arabera eratzen eta zuzentzen dira. Hauteskunde-sistema eta antolaketa propioa dituzte. Egitura piramidala dute: kirol-klubak batu egiten dira, eta probintziako edo erkidegoko federazioak osatzen dituzte; erkidegokoek, estatuetaoak; eta piramidearen puntan nazioarteko federazioa dago (Espada, 2015).

Gogoratu behar dugu Euskal Autonomia-Erkidegoan (EAE), euskal federazioez gain, lurralde historiko bakoitzeko federazioak ere badaudela. Hori horrela izanik, egun 197 federazio daude EAEn. Gainera, politika-sistema orokorra bezala, EAEn lehenagotik sortu ziren lurraldeetako kirol-federazioak; eta euskal federazioak gerora jaio ziren.

Kirol-klubak ere elkarte pribatuak dira, pertsona fisikoek edo juridikoek osatuak, eta askotariko helburuak dituzte: kirol-modalitate bat edo

gehiago sustatzea, bertako kideen kirol-partaidetza eta kirol-lehiaketa zein jardueretan parte hartzea. Klubek finantzaketa lortzen dute bazkideek ordaindutako kuotetatik, kirol-entrenamenduko programetatik, jarduera propioetatik edo babesle txikietatik, baina, batez ere, eskualdeko eta tokiko gobernuen diru-laguntzetatik (Ibsen, Nichols eta Elmore, 2016).

Estatuko Kirolaren 39/2022 Legean, Espainiar Estatuko deszentralizazioa medio, autonomia-erkidegoei eskumen garrantzitsuak ematen zaizkie kirola arautzeko. Horregatik, arreta jarriko dugu Euskadiko jarduera fisikoari eta kirolari buruzko 2/2023 Legeak, martxoaren 30ekoak, kirol-erakundeak arautzeko esandakoetan. Araubide horiek bereziki izan beharko ditugu kontuan ekonomia sozialaren ikusmoldeak lantzeko, Gipuzkoako kirol-erakundeen nolakotasuna zehazten duten araubideak bertan baitaude jasota.

Hasteko, deituri dagokienez, kirol-klubak, kirol-elkarteak, kapitaleko kirol-elkarteak, kirol-federazioak eta Euskal Kirol-Federazioen Batasuna dira kirol-erakundeak: horiek, eta ez besterik. Izan ere, legeak dioen bezala, nahasmena sortuko luke bestelako izenak gehitzeak.

Legeak arautzen du kirol-klubak eta kirol-elkarteak irabazi asmorik gabeko elkarte pribatuak direla, eta printzipio demokratikoen eta ordezkatzailen arabera eratuko dituztela barneko egitura eta funtzionamendua. Horretaz gain, helburua kirol-modalitate bat edo gehiago sustatzea edo egitea dute.

Azkenik, euskal federazioak irabazi asmorik gabeko entitate pribatuak dira, baina kirol-modalitate bera sustatzeko edo praktikatzeko erakundeak soilik biltzen dituzte. Era berean, kirol-federazioek eginkizun publikoak dituztela gogorazten du Legeak, administrazio publikoak eskuordetutakoak. Kirol-sozietate anonimoei buruzko legean arautzen dira eginkizun horiek, uztailaren 16ko 1251/1999 Errege-Dekretuan.

2.3. Merkataritzako sektore pribatua

Lera-Lópezen eta Lizalde-Gilen (2013) aburuz, ukaezina da kirolaren garrantzia ekonomikoa egungo gizartean. Kirol-jardueren profesionalizazioak, eremu profesionala eta ikusleena ez ezik, badu zerikusirik era guztietako instalazioekin, ekipoeekin eta zerbitzuekin ere. Horiek guztiak kontsumo-produktu izanik, merkatu ekonomiko handia osatzen dute; baita, ondorioz, merkataritzako sektore pribatua ere.

3. Kirolaren hirugarren sektorea

Badago, beraz, kirolaren literatura zientifikoan irizpiderik interes-taldeak hiru multzo nagusitan banatzen dituenik. Gainera, egindako irakurketetan, *sektore* hitzarekin egindako banaketa bera ere jaso dugu. Hala eta guztiz ere, 1. taulan ikus daitekeen bezala, ez dugu aurkitu sailkapen bateraturik eta onaturik: hiru multzo nagusi bereizten dira, baina deiturak asotarikoak izan daitezke landutako literaturaren arabera.

2. Taula

Kirolaren interes-taldeekin egindako banaketa nagusiak

Iturria	Lehen sektorea	Bigarren sektorea	Hirugarren sektorea
Kirolaren Europako Gutuna (2021)	Botere publikoa	Enpresa- eta lanbide-sektoreak	Kirol-mugimendua
Lera eta Lizalde (2013)	Sektore publikoa	Sektore pribatu komertziala	Elkartegintzako sektore pribatua
Solar (2022)	Administrazioa, Lehen sektorea	Industria, Bigarren Sektorea	Elkartegintzako sektorea, Hirugarren sektorea
Scheerder et al. (2015)	Gobernukoa	Gobernuz kanpoko erakundeak (irabazi-asmoarekin)	Gobernuz kanpoko erakundeak (irabazi-asmorik gabe)

Iturria: egileok egina.

Errebisatutako literaturak pentsaratzen du kirolaren literatura zientifikoak bat egiten duela sektorekako banaketa sozioekonomikoarekin; alegia, lehenengo sektorea (sektore publikoa), bigarren sektorea (irabazi-asmodun sektorea) eta hirugarren sektorea (sektore soziala) banatzearekin. Hori horrela dela uste badugu ere, etorkizunean literatura zientifikoa sakonago aztertzea iradokitzen dugu.

Bestalde, ekonomia sozialaren literatura zientifikoan, bereziki CIRIEC⁴ España eta Universitat de Valénciak argitaratutako *Libro Blanco de la Economía Social y del Tercer Sector en la Comunitat Valenciana 2020* liburuan, erreferentzia egiten zaio kirolaren hirugarren sektoreari.

⁴ CIRIEC: *Centre International de Recherches et d'Information sur l'Économie Publique, Sociale et Coopérative* (<https://www.ciriec.uliege.be/en/>)

Honela dio liburuan (Chaves eta Monzón, 2020): «Gizarte-ekintzako hirugarren sektoreak arreta handia jaso du literatura zientifikoaren aldetik hainbat hamarkadatan; hala ere, badira haren beste zati batzuk ezezagunak, hala nola, kirolaren hirugarren sektorea, hirugarren kultura-sektorea edo hirugarren ingurumen-sektorea» (2020, or. 8). Orrialdeetan aurrera egin ahala, kirolaren hirugarren sektorea «akademikoki esploratu gabeko» (2020, or. 49) sektorea dela azpimarratzen du. Ekonomia sozialaren kontzepzioetan ere aitortzen da, hortaz, kirolaren hirugarren sektorea. Deitu ere hala egiten diote: kirolaren hirugarren sektorea.

Literatura zientifikoaren ikuspegi horretatik ez dira lan asko argitaratu, Chavesek eta Monzónnek esan bezala, oraindik ere akademikoki esploratu gabeko esparrua baita. Hala ere, badira batzuk: Chaves, 2017; Chaves eta González, 2018; Chaves eta Monzón, 2020; González, 2023.

Kirolaren eta ekonomia sozialaren ikerketa zientifikoak izan duen bideagatik, zilegi dela uste izan dugu Pérez de Mendigurenek, Etxezarretak eta Guridik (2009) landutako ekonomia sozialaren ikusmoldeei begiratzea: hirugarren sektorearena, ekonomia sozialarena, NPOena (non profit organizations), ekonomia solidarioarena eta enpresa sozialarena. Horren ondoren, ikusmolde bakoitza Gipuzkoako kirol-federazioek, klubek eta elkarteek duten nolakotasun juridikoarekin alderatuko dugu, testuinguru geografiko eta soziopolitiko zehatzean soilik egin behar da-eta tokiko azterketa enpirikoa.

3.1. *Hirugarren sektorea*

Gaur egun, «hirugarren sektore» kontzeptuak halako anbiguotasun kontzeptual bat badu ere, aurreko hamarkadetan baino aintzatespen eta definizio handiagoa du. European, *Third Sector Impact*⁵ (TSI) proiektuak hiru ezaugarri komun definitzen ditu, hirugarren sektoreko entitateak mugatzen dituztenak:

- Erakundeak Gobernutik bereizitako erakundeak dira, baina Estatuarekin harreman estua izan dezakete.
- Autogobernu esanguratsua dute.
- Borondatez parte hartzeko aukera dute.

Kasu askotan ez da erraza ekonomia sozialeko ikusmoldeen arteko mugak zedarritzea: batzuetan, muga horiek argiagoak dira; besteetan, ez

⁵ TSI: ikerketa-proiektu bat da, helburu ditu ulertzea hirugarren sektoreak European zenbaterako irismen eta eskala dituen, gaur egunze eragin duen eta izan dezakeen, eta hirugarren sektoreak kontinentearen ongizateari bete-betean laguntzea ze oztopok eragozten duten.

horrenbeste. Horregatik, Pérez de Mendiguren *et al.*-en (2009) aburuz, mundu akademikoan modu erregularrean erabiltzen da «hirugarren sektorea» terminoa ekonomia sozialeko ikusmoldeak barne hartzeko, integratu egiten baititu hemen azalduko ditugun ikusmoldeak.

3.2. *Ekonomia sozialaren ikusmoldea*

Europako Kontu-Sisteman, EKS-2010, S15 sektorearen barruan daude kiroleko erakundeak. Irabazi asmorik gabeko erakundeen atalean daude, eta ez merkatu-azpisektorearen barne (González, 2023).

Sailkapenaz gain, oro har, hauek dira ekonomia sozialeko erakundeek bete beharreko oinarritzko zapi ezaugarriak (Pérez de Mendiguren *et al.*, 2009):

- Erakunde pribatuak dira.
- Modu formalean daude antolatuta eta nortasun juridikoa dute.
- Erabakitzeko autonomia dute.
- Atxikitze askatasuna daukate.
- Mozkinen behin-behineko banaketa ez dute jarritako kapitalaren arabera egiten.
- Jarduera ekonomikoa garatzen dute.
- Erakunde demokratikoak dira.

Zazpi ezaugarriek bat egiten dute normatiboki Gipuzkoako federazioen, klubien eta elkarten ezaugarriekin.

3.3. *NPOen ikusmoldea*

Irabazi-asmorik gabeko erakundeen edo NPOen kontzeptua bost ezaugarriren arabera dago zehaztuta (Salamonen eta Anheier, 1997):

- Erakunde formalak izan behar dute.
- Pribatuak izan behar dute.
- Autonomoak izan behar dute.
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeak izan behar dute.
- Boluntarioen partaidetza izan behar dute.

Horrez gain, NPOen nazioarteko sailkapena (ICNPO) proposatzen dute Salamonek eta Anheierrek (1997). Kasu horretan, kirola Kultura eta Aisialdiaren azpitaldean dago.

Ezarritako bost ezaugarrietatik lehen lauak betetzeko beharra ezartzen die kirol-klubei, elkartei eta federazioei Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren 2/2023 Legeak. Boluntarioen partaidetza, berriz, hautazkoa da. Beraz, ezin da orokortze arauemailerik egin, nahiz eta jakin dakigun boluntarioen partaidetza oinarritzakoa dela Gipuzkoako federazioetan, klubetan eta elkarteetan.

3.4. *Ekonomia solidarioaren ikusmoldea*

Ekonomia solidarioaren kontzeptuak ekonomia sozialean du jatorria, eta harreman ekonomikoak beste irizpide batzuetatik berrezartzeko ahalegina da (Pérez de Mendigurenek et al., 2009).

Ekonomia Alternatiboaren eta Solidarioaren Sareak (REAS) 2022. urtean argitaratu zuen Ekonomia Solidarioen Printzipioen Gutunaren azken bertsioa. Bertan, sei printzipio zehazten dituzte: berdintasuna, lan duina, jasangarritasun ekologikoa, lankidetzak, aberastasunaren banaketa eta ingurunearekiko konpromisoa.

Ikusmolde orokorra ezagututa, ez da ohikoa ekonomia solidarioko kirol-erakundeak aurkitzea. Nolanahi ere, antolakunde askok betetzen dituzte ikuspegi horren printzipio gidari oinarritzakoenak, batez ere elkarteak direlako, eta horrenbestez, gobernu demokratikoa dutelako, irabazi asmorik ez izateaz gain. Hala ere, argitu behar da kirol-erakunde gehienek ez dituztela helburu ekonomia solidarioak lehentasunezko zatituen ardatzak. Kirola sustatzea da haien izatearen arrazoi nagusia (González, 2023).

Beraz, Gipuzkoako kirol-erakunde gehienak ekonomia solidariokoak ez izan arren, ez dago hala izatea eragozten dien ezer; izan ere, hori erakunde bakoitzaren izaeraren eta kirol-funtzio nagusitik haragoko helburuen mende dago.

3.5. *Enpresa sozialaren ikusmoldea*

Díaz-Fonceak eta Marcuellok (2012) Europar Batasunak eta akademiak onartutako enpresa sozialaren definizioa erakusten dute:

Enpresa sozialak irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak dira. Komunitateari zuzenean onura emateko helburu esplizitua dute, ondasunak eta zerbitzuak eskainita. Talde-dinamika oinarri dutelako, *stakeholder-sak* sartzen dituzte beraien gobernu-organoetan. Erakunde autonomoak dira, eta jarduera ekonomikoarekin lotutako arriskuak jasaten dituzte (2012, or. 183).

Horrez gain, bi dimentsiotako irizpideak bereizten dituzte:

- Irizpide ekonomikoak: ondasunak ekoizteko edota zerbitzuak saltzeko jarduera jarraitua, autonomia handia, arrisku ekonomiko esanguratsua eta ordaindutako gutxieneko lan-kopurua.
- Irizpide sozialak: komunitatearen onurarako helburu esplizitua, herritar-talde batek bultzatutako ekimena, erabakitzeke ahalmena ez dago kapitalaren jabetzan oinarrituta, izaera parte-hartzailea izatea erakundeak, interes-taldeak gertu izatea eta posibleen banaketa mugatua.

Ezaugarri horiek bete ditzaketela ikusten dugu Gipuzkoako kirol-federazioek, klubek eta elkarteek. Dena den, kasu honetan ere ezin da orokortu izaera juridikoarekin soilik. Irizpide ekonomikoetan, ezaugarri kritikoak izan daitezke arrisku ekonomiko esanguratsua eta ordaindutako gutxieneko lan-kopurua izatea. Irizpide sozialetan zalantza gutxiago dago, kirol-erakundeek bere baitituzte ezaugarri horiek, oro har.

Orain arteko ikerketa ikusita, badirudi Gipuzkoako kirol-federazioak, klubak eta elkarteak ekonomia sozialeko ikusmoldeetan integra daitezkeela, nahiz eta zalantzak egon daitezkeen ikusmolde murriztaileenekin, kasuan-kasuan.

4. Lan enpirikoa: kirolaren hirugarren sektorea Gipuzkoako txirrindularitzaren ikuspegitik

Lehen intuizio horretatik abiatuta, ikerketarako galdera (*RQ*) formulatu dugu: ba al du zentzurik erakunde multzo horri (hau da, kirol-mugimenduari, elkartegintzako sektore pribatuari, elkartegintzako sektoreari, irabazi-asmorik gabeko GKEei) kirolaren hirugarren sektorea deitzeak?

Ikerketako galderari erantzuteko, lurraldeko azterketa enpirikoa lotu diogu orain arte egindako lanari. Horrela, aurretik egindako azterketa kontrastatu, osatu eta aberastu egingo dugu, eta errealitate jakin horretatik, lehen erantzun posibleak ematen hasiko gara ikerketako galderari. Hori horrela izanik, ezer baino lehen, aztertutako kasuaren arazoak eta ezaugarriak ulertarazi nahi ditugu.

Alde batetik, Gipuzkoako Lurralde Historikoan egin dugu ikerketa enpirikoa. Egileon jaiotze-lurraldea izateaz gain, Gipuzkoako Foru-Aldundiak badu estrategia lurraldearen aurrera begirako erronkei aurre egiteko lankidetzazko gobernantzaren bidez, besteak beste, Etorkizuna Eraikiz ekimenaren baitan. Bestetik, txirrindularitza hautatu dugu aztertzeke kirol: kasu pertinentea dela aurreikusi dugu, tentsioak eta iraunkortasun arazoak atzeman baititugu Gipuzkoako txirrindularitzan, izan federazioan, izan klubetan eta elkarteetan.

Ikerketa enpirikoa egiteko metodologia kualitatiboa erabili dugu: ego-
kia da karga ideologikoak, motibazioak, ideiak, iritziak eta irudikapen
pertsonalak aztertzeko: finean, diskurtsoak aztertzeko. Jakin dakigu meto-
dologia kualitatiboak ez duela adierazgarritasun estatistikorik bilatzen. La-
gin kualitatiboaren adierazgarritasuna bestelakoa da, egiturazkoa; hau da,
aztertzen den gizarte taldeko harremanen egitura adierazten du, eta, ho-
rregatik, garrantzia handiagoa ematen dio datuen kalitateari haien kantita-
teari baino (García, 2006).

Informazio kualitatiboa lortzeko erabiliko dugun teknika, berriz,
elkarrizketa sakonak eta erdi-egituratuak egitea izan da. Ikerketa kualitati-
borako teknika honek aukera ematen du elkarrizketatuaren iritzietatik ha-
ratago joateko, jakiten laguntzeko zertan oinarritzen diren, zer uste edo es-
perientzia sortzen diren (Díaz de Junguitu, 2013). Aldez aurretik pilotatu
eta balioztatu ditugu elkarrizketa erdi-egituratuak. Horrek bermatu egiten
du datuak biltzeko elkarrizketak fidagarriak eta egokiak izatea.

Elkarrizketa-panela osatzeko ahalegin handia egin dugu; xehetasun
batzuk 3. Taulan daude ikusgai. Batetik, sektoreen banaketa izan da lagina
osatzeko irizpide nagusia, hau da, sektore bakoitzeko ordezkariak izan di-
tugu. Hiru sektoreak egon dira ordezkatzuta elkarrizketatutako sei aditue-
kin. Kasu batzuetan, oso sektore finkatua dute; beste batzuetan, aldiz, ba-
tean baino gehiagotan daude presente. Generoaren eta adinaren irizpideak
ere askotarikoak izatea nahi genuen, baina saiakerak antzuak izan dira hein
handi batean: emakume batek eta bost gizonezkoek hartu dute parte, eta
berrogei urtetik beherako bakarrak baino ez. Hori horrela izanagatik, uste
dugu adituen lagina kalitate handikoa dela.

3. Taula

Elkarrizketatuen panela

Zk.	Data	Sektorea	Generoa	Adina	Iraupena	Modalitatea
1	2024-05-23	3	Gizonezkoa	25	59:55	Presentziala
2	2024-05-24	3	Emakumezkoa	50	49:18	Presentziala
3	2024-05-27	1&3	Gizonezkoa	55	1:06:33	Presentziala
4	2024-05-27	2	Gizonezkoa	45	40:11	Presentziala
5	2024-05-28	1	Gizonezkoa	45	34:23	Presentziala
6	2024-05-30	1	Gizonezkoa	60	1:09:25	Presentziala

Iturria: egileok egina.

Elkarriketa guztiak 2024ko maiatzean zehar egin genituen. Elkarriketatuen eta elkarriketatzailen prestutasunari esker, presentzialki egin ziren guztiak, euskaraz zein gaztelaniaz. Hizketaldi horiek grabatu egin genituen, eta berehala idatziz jarri.

Galdetegiari berari dagokionez, hiru sail nagusi ezarri ditugu elkarriketak egituratzeko. Lehenik, kirola ulertzeko moduaren inguruan galdetu diegu elkarriketatuei. Bigarrenik, kirola sustatzeko hiru taldeei buruz hitz egin diegu, literaturan identifikatutakoak: administrazio publikoa edo lehen sektorea, sektore pribatua edo bigarren sektorea eta hirugarren sektorea.

Hirugarrenik, KHSaren kontzeptua mahaigaineratu dugu. Egitura asoziatiboaren inguruan galdetu diegu, orain arteko ezaugarrietan eta izandako aldatetetan. Etorkizuneko ikuspegia ere jarri diegu auzitan, betiere Gipuzkoako txirrindularitza hizketagai izanda.

5. Emaitzak

Bosgarren puntu honetan, ikerketa teorikoaren eta enpirikoaren emaitzak plazaratuko ditugu. Kontuan izan behar dugu atal honetako emaitzak ez direla soilik ikerketa enpirikotik lortutakoak izango, ibilbide osoko analisiaren ondorio, baizik.

Hori jakinik, emaitzak hiru atal nagusitan banatu ditugu. Lehen azpiatalean ikerketa-lerroaren garrantziari buruz arituko gara. Ondoren, bigarrenean, kirolaren antolaketa-egitura hiru sektoretan banatzeari buruz jardungo gara, eta sektore bakoitzari buruz, oro har. Bukatzeko, berriaz, KHSan jarriko dugu arreta, hirugarren azpiatalean. Hori guztia, Gipuzkoako txirrindularitzaren kasu konkretutik jasotako ekarpenek aberastuta.

5.1. *Ikerketa-lerroaren garrantzia*

Aztergai akademiko berria dela jaso dugu; horregatik, esplizituki landu nahi izan dugu ikerketa-lerroak izan dezakeen garrantzia. Berretsi dugu KHSa esploratu gabeko ikergaia dela, eta pentsatzen dugu ikerketa-lerro bat izan dezakegula esku artean. Ondorioztatu dugu, gainera, akademiari eskatzen zaigula hausnarketa hori egiteko, gizarterako transferentzia egiteaz gain.

Ildo beretik, esan digute EAE eremu bikaina dela gai hau ikertzeko, bi ezaugarri nagusigatik.

Batetik, primerako eremua delako ekonomia sozialaren bide berriak ikertzeko:

Hay un tema que es sumamente importante: si hay un lugar donde se pueden hacer reflexiones en torno a la economía social, es en el País Vasco. Porque aquí estamos cooperativizando dos aspectos muy relevantes: el empleo y el ocio. ¿Por qué no se podrían cooperativizar también la vivienda y el deporte? (3. elkarrizketatua, komunikazio pertsonala, 2024ko maiatzaren 27a).

Bestetik, EAEn 197 kirol-federazio daudelako, egun. Lurralde Historikoen izaeragatik, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako federazioak ditugu, eta gainera, horiek trakzionatzen dute (6. zk. elkarrizketatua, komunikazio pertsonala, 2024ko maiatzak 30). Euskal federazioek, askotan (txirindularitza, kasu), Euskadiko txapelketak soilik antolatzen dituzte. Gauzak horrela, ia 200 federazioen arteko sistemak badu zailtasunik eta konplexutasunik. Horretaz gain, jakin behar da 4.414 kirol-klub eta 265 kirol-elkarte daudela Eusko Jaurlaritzako kirol-erakundeen erregistroan.

Aztertutakoak aztertuta, badirudi KHSa akademikoki ikertu gabeko alorra dela, eta unibertsitateari eskatzen zaigu horren inguruan ikertzeko. Gainera, ikusi dugu toki aproposa dela, bai ekonomia sozialean, bai kirolean sakontzeko.

5.2. Hiru sektoreko kirolaren antolaketa-egitura

Ekonomia sozialaren literatura zientifikotik abiatu ginen kirolaren hirugarren sektorea ezagutzeko. Hori horrela izanagatik, kirolaren ikuspegitik begiratutako azterketa egin dugu. Ikusi dugu, erreferentzia batean baino gehiagotan, kirolaren antolaketa-egitura hiru talde nagusitan banatuta dagoela. Ikerketa enpirikoan, gainera, elkarrizketatutako inork ez du ezbaian hiruko taldekatzea; aitzitik, onetsi egin dute banaketa «*zuzena*», «*koherentea*» eta «*zentzuduna*» dela.

Onespena ez ezik, jaso dugu banaketa horrek, hain justu, sektoreen arteko ezberdintasunak azaleratzen ere badituela:

Creo que la clasificación está bien hecha, pero lo único que hace es resaltar, precisamente, las diferencias existentes entre los puntos de vista de cada uno. Nadie parece entender que mis problemas, quizás, podrían resolverse interactuando con la otra parte. Tengo la impresión de que los tres agentes no quieren relacionarse entre sí ni de lejos. (5. elkarrizketatua, komunikazio pertsonala, 2024ko maiatzaren 30a)

Lehen sektorearen eta KHSaren artean ikusi dugu, besteak beste, esku-menak eskuordetzen dituztela eta finantziazio handiak bideratzen dituela lehen sektoreak hirugarrenera. Harreman hori auzitan jarri da.

Esan da kirolaren zuzendaritza osasunaren barnean egoteak zentzu gehiago izan dezakeela kulturaren edo hezkuntzaren sailetan integratzeak baino. Kirolaren Europako Gutunari kasu eginda, eta 2/2023 Legea, Euskadiko jarduera fisikoarena eta kirolarena ikusita, Osasun-Sailaren barruan egon beharko luke kokatuta zuzendaritza horrek, jarduera fisikoak gizarte osoarentzat dakarrelako onura. Jarduera fisikoaz gaindikoa egiturak, ordea, eremu pribatuan ikusi dira hertsiki. Hori horrela ulertuta, eztabaidarako gai bat mahaigaineratu da:

¿Deberían los poderes públicos financiar directamente a las federaciones deportivas? ¿O más bien, deberían destinar esos recursos a iniciativas que promuevan la actividad física como parte de una estrategia de salud pública? Esa es la verdadera cuestión, un debate que nadie parece querer abordar, ni desde el ámbito federativo ni desde las propias instituciones públicas. (3. elkarrizketatua, komunikazio pertsonala, 2024ko maiatzaren 27a)

Kirolaren bigarren sektorea, txirrindularitzan, konkretuki, «desprofesionalizatu» dagoela jaso dugu, bertako erakundeak bizikleta-zaleek kudeatzen dituztelako, eta ez profesionalek. Horrez gain, aipagarria da txirrindularitzako industriaren atomizazioa, ekoizle txiki ugari daudelako eta horrek sektorea profesionalizatzea zailtzen duelako, nahiz eta sarre-rahesia errazagoa izan gainditzeko.

Gainera, adierazi digute «*arrakasta lortzeko oinarriak oso antzekoak*» direla (4. elkarrizketatua, komunikazio pertsonala, 2024ko maiatzaren 27a). Joera batzuk errepikakorrek dira, lehiarekin loturarik gabekoak, baina bai jarduera fisikoaren eskaintzarekin. Logika horretan, federazioek ez omen dute, ez borondaterik, ez gaitasunik, kudeaketan? sartzeko. Elkarrizketatu batzuen ustez, merkataritza-interesa duten enpresak dira joera horien buru, eurek baitituzte egungo sistema lehiakorrera egokitzeko gaitasuna eta interes ekonomikoa, KHSko beste erakundeek eta administrazio publikoak ez bezala.

Hirugarren sektoreari buruz, askotariko ikuspegiak hauteman ditugu. Batetik, hirugarren sektoretik kanpoko pertsonak kritiko dira federazioen eskumen publiko delegatuengatik, eta horregatik, federazioen, klubien eta elkarten finantziario justifikatuagatik. Argi dute kirolaren hirugarren sektorea pribatua dela, eta hori horrela izanik, eskumenak eskuordetzeak eta finantziario horiek jasotzeak ez duela aldeko argudiorik, oinordekotzan jasotako praktikak direla, baizik.

El movimiento deportivo es, en su totalidad, privado. Surge un debate: ¿debe la administración pública fomentar y destinar dinero a la Federación Vasca de Ciclismo? Pues que lo paguen los clubes, ¿no? Si no, quiebra. Pues que quiebre. En Inglaterra, los clubes no reciben ni un céntimo de las administraciones públicas. La Ley 2/2023, de la actividad física y del deporte del País Vasco ha avanzado en esa dirección, pero se ha quedado a medias. (3. elkarriketatu, komunikazio pertsonala, 2024ko maiatzaren 27a)

Zalantza askorik ez dago, beraz: ikerketa zientifikoan eta enpirikoan onartzen dute elkarriketatu hiru sektoreko kirolaren antolaketa-egitura. Auzitan daude, ordea, sektoreen arteko harremanak, bakoitzaren funtzionamendua eta helburuak.

5.3. *Kirolaren hirugarren sektorearen zentzua Gipuzkoako txirrindularitzarentzat*

Emaitzen azken azpiatal honetan, kirolaren hirugarren sektoreari buruzko emaitzak jasoko ditugu. Erakutsi dugu azken urteotan, badagoela KHSa aztertzeko interes akademikorik CIRIECen barnean. Horren inguruan, adierazia dute Chavesek eta Monzónek (2020) «*esploratu gabeko*» ekonomia sozialeko jardura dela.

Kirolaren literatura zientifikoan ikusi dugu beste terminologia batzuk ere erabili izan direla KHSari erreferentzia egiteko: kirol-mugimendua, elkartegintzako sektore pribatua, elkartegintzako sektorea eta irabazi-asmorik gabeko GKEa, batzuk aipatzearen. Errebitsatutako argitalpenetan, baina, ez dugu finkatutako deiturarik identifikatu; edonola ere, hiru sektoreko banaketaren bidetik doaz.

Azaldutako guztiagatik, iruditzen zaigu ezinbestekoa dela KHS deitzeak zer eragin izan dezakeen ikertzea, betiere sailkapenetik haratago eta ekonomia sozialaren ikusmoldeak kontuan izanda. Beste ñabardura asko tartean, hori argitzen saiatuko gara hurrengo lerrootan.

Lehenik eta behin, aditu guztiak bat datoz: aldaketa garaian daude KHSa osatzen duten erakundeak. Era berean, elkarriketatuak diotenez, federazio, klub eta elkarte askoren egoera larria da, jende faltagatik, baliabide ekonomiko urriengatik eta era guztietako lege-eskakizunak zuzen betetzeko zailtasunak dituztelako.

Askotariko erronka konplexu horien aurrean, ekonomia sozialak ikuspegi berritzailea eskaini dezake:

Yo creo que la vía de la economía social es adecuada: no es especulativo, hay que hacerlo más empresa, más profesional y el que se quede en el camino, pues que se quede. Esta transformación, por ejemplo, puede venir del ámbito cooperativo. (3. elkarrizketatua, komunikazio pertsonala, 2024ko maiatzaren 27).

Ildo horretatik, kirol-erakundeen artean izaera juridiko-kooperatiboa izateko proposamena jaso dugu. 2.2. azpiatalean ikusi dugu nola Gipuzkoako kirol-erakundeak definitzen dituen Euskadiko jarduera fisikoari eta kirolari buruzko 2/2023 Legeak. Egun, ez da kooperatibarik aurreikusten, baina ikertu beharreko alorra dela jaso dugu. Lehenik, kirol-klub bat kooperatiba bihurtu ote daitekeen jakitea da gakoa. Kirol-klub edo elkarte batetik kirol-kooperatiba batera salto egiteko aukera aztertzekoa da: kooperatiba «askoz» tresna gehiago ditu batek elkarte batek baino, ulertuta esparru pribatuan daudela kokatuta. Bigarrenik, zalantzakoa da ea balizko kirol-kooperatiba hori onartua izango litzaken federazio batean; alegia, kirol federatuan sartu ahal izango ote litzatekeen.

Izan kirolaren literaturan, izan ekonomia sozialarenean, langile boluntarioak aipatzen dira. Kirolaren Europako Gutunak dei egiten du boluntariora sustatzeko eta babesteko, eta bada NPOen ezaugarrietako bat ere. Elkarrizketatuek, ordea, irmoki ziurtatu dute boluntario aritzeko joera amaitzen ari dela Gipuzkoako txirrindularitzan: «*Boluntariora desagertzen ari da. Gainera, araubideak ematen ari dira hori gerta dadin.*» (1. elkarrizketatua, komunikazio pertsonala, 2024ko maiatzaren 23a).

Bi zergati antzeman ditu 6. elkarrizketatuak. Bateko, soziologikoki gizartea erabat aldatu dela uste du. Gaur egun ez omen dago harrotasun- eta pertinentzia-sentimendurik, eta trukean jasoko den zenbatekoa gailentzen da. Besteko, administrazioaren erregularizazioa dago tarteko: Boluntarioen Euskal Legeak dio boluntarioak konpentsazio bat jaso dezakeela, baina soilik jarduera horrek eragindako gastuengatik, eta ez besterik.

Bat egin dute kirol-erakundeetako elkarrizketatuek esanik, azken urteetan, batik bat, oso zaila dela kirol-erakundeetan jardutea pizgarri ekonomikorik gabe, nahiz eta taldearekiko atxikimendua handia izan.

Aldaketa hori tarteko, pentsatzen dugu ekonomia sozialaren ekarpena esanguratsua izan daitekeela ikuspegi horretatik ere. Batetik, araubideek diote boluntariora sustatu behar dutela kirol-erakundeek, eta horrenbestez, hein txikiago edo handiago batean, langile boluntarioak izan egituretan. Bestetik, ordea, badirudi gero eta zailagoa dela hori, eta pixkanaka, konpentsazio ekonomikoa jasotzen hasi dira kide batzuk. Erronka handia da bi alderdi horiei erakunde berean eustea, eta pentsatzen dugu ekonomia soziala lagungarri zan daitekeela hori kudeatzeko.

Administrazio publikoko bi elkarrizketatuk azaleratu dute kirol-klubek eta elkarteek eskaintako zerbitzuaren inguruko gaia. gaur egun, ia dohainik izaten dira txirrindularitza-lehiaketetako jarduerak, baina gizarte kritikoagoa da eskaintzen den zerbitzuarekin: «*Ez dugu ordaindu nahi, baina zerbitzu ona nahi dugu. Lehen, kontrara, exigentzia bakarra ongi pasatzea zen.*» (5. elkarrizketatua, komunikazio pertsonala, 2024ko maiatzaren 30a).

Gizarteak esparru horretan izandako aldaketagatik, kirol-zerbitzua eguneratu beharra dago: «*Si el deporte, como sector de ocio, no se valora al mismo nivel que otras ofertas de la sociedad, estaremos en serios problemas.*» (6. elkarrizketatua, komunikazio pertsonala, 2024ko maiatzaren 30a).

Eskuarteko auziagatik, besteak beste, zerbitzua profesionalizatzearen bidetik jo du gizarteak, oro har, eta baita azken urteotako kirolaren legeek (Europa, Espainia, EAE) ere. Hori guztia sostengatzeko beste funtzionamendu-sistema bat behar da.

Laburbilduz, kirol-erakunde batzuek, kirola sustatzea ez ezik, beste balio sozial batzuk ere badituztela ematen du, hezkuntza, osasuna, eta gizartearen ongizatea, kasu. Ez dira interes ekonomiko soilak. Horregatik, pentsatzen dugu ekonomia sozialaren kontzepzioek egitura sendotzen lagundu diezaieketela antolakunde horiei. Ekonomia sozialaren ikuspegia barnerratuta, ez lukete xede soziala galduko; are gehiago, erdigunean jarri dezaketela pentsatzen dugu, eta balio nabarmenagoa eman.

6. Ondorioak

Ikerketa honetan saiatu egin nahi izan dugu kirolaren eta ekonomia sozialaren literatura zientifikoa ikertzen. Lehen ezagutzak lortu ondoren, galdetu nahi izan dugu ea zentzurik ba ote duen kirol-erakunde multzo bati Kirolaren Hirugarren Sektore deitzeak, egun askotariko deiturak izanik.

Laburbilduz, baieztatu ahal izan dugu hasi berria dela kirolaren eta ekonomia sozialen ikerketa-lerroa. Kirola definitzeko desadostasunak daude, eta hori aktiboki eztabaidatzen da komunitate zientifikoan. Hala-ber, egiaztatu dugu kirolaren interes-taldeak giltzarriak direla hura sustatzeko. Deigarria da, nahiz eta hiru interes-talde bereizi literaturan ia beti, askotariko deiturak dituztela: ez dago adostutako izenik.

Kirolaren interes-taldeak edo sektoreak ulertzeko, Espainiar Estatuko kirolaren antolaketa-egituran sakondu dugu. Funtsezkoa izan da sektore bakoitzeko erakundeak eta funtzionamendua ezagutzea, bereziki Gipuzkoako kirol-erakundeena, jakin baitakigu autonomia-erkidego bakoitzak duela eskuduntza, gaur egun, kirolaren legeak onartzeko, eta

horrenbestez, kirol-erakundeen ezaugarriak ezartzeko, Espainiako egitura deszentralizatua dela medio.

Gipuzkoako kirol-federazioen, klubien eta elkarten kasuan, ikusi dugu ekonomia sozialeko ikusmoldeak, oro har, bat egiten duela Euskadiko kirolaren eta jarduera fisikoaren 2/2023 Legeak finkatutako ezaugarriekin. Beraz, kirolaren hirugarren sektoreko erakundetzat hartu ditzahegu. Horraino iritsita, ordea, galdegin dugu ea ze zentzu duen KHS deitzeak erakunde horiei, jada askotariko izenak topatu baititugu kirolaren literaturan.

Azterketa enpirikoarekin osatu dugu ikerketako galderaren erantzuna. Berretsi dugu KHSea esploratu gabeko ikergaia dela, eta hauteman dugu akademiari eskatzen zaigula hausnarketa hori egitea. Gainera, EAE leku paregabea dela ere esan digute sektore hori aztertzeko. Beraz, pentsatzen dugu ikerketa-lerro bat izan dezakegula eskuartean.

Baiezatu dugu, bestalde, ez dagoela kirol-erakundeen banaketa bakar eta adosturik. Askotariko deiturak erabiltzen dira erakundeak multzokatzeko, nahiz eta guztietan hiru sektoreko norabideari eutsi. Horregatik, uste dugu lehen lan-lerro bat izan dezakegula etorkizunerako: kirolaren interes-taldeen, eta bereziki, KHSaren edo baliokideen ikerketa sistematiko eta bibliografikoa egitea.

Azkenik, Gipuzkoako federazioak, klubak eta elkarteak trantsizio prozesu batean daudela jaso dugu, eta egoera kritikoa dela, besteak beste, jendea falta delako aurretik zeuden boluntarioak ordezkatzeko, baliabide ekonomikoak urriak eta mugatuak direlako eta lege-eskakizunak asko zaildu direlako.

Kirol-federazioek, klubek eta elkarteek, kirola sustatzeaz gain, balio sozialak dituztela dirudi. Horregatik, uste dugu ekonomia sozialaren kontzepzioek eta KHSa definitzeak asko lagundu dezaketela Gipuzkoako kirol-federazioen, klubien eta elkarten erronka berriei aurre egiteko aldaketa-prozesu horretan.

Lan honek, ikerketa orok bezala, baditu zenbait muga kontuan hartu beharrekoak. MAL bat ardatz izanik, literaturaren azterketa ez da izan, ez sistematikoa, ez bibliometrikoa. Iturri fidagarriak eta esanguratsuak erabili ditugu, baina uste dugu egin daitekeela azterketa sakonagorik. Ildo beretik, ikerketa enpirikoan sei adituk hartu dute parte, eta nahiz eta egiturazko lagina dela pentsatzen dugun, bistakoa da laginaren tamaina txikia dela. Bestalde, lurraldeko ikerketa enpirikoa egin izanak fenomeno errealtatetik oso gertu ezagutzeko abantaila eman digu. Hala eta guztiz ere, kasu konkretu horren ezaugarriak ez dira beti alderagarriak izango beste kirol zein lurraldeekin.

Orain arte egindako ikerketak bere ditu muga horiek. Hala ere, etorkizun hurbilean erantzuna ematea da gure asmoa. Doktoretza tesiaren bi-

tartez, lehendabizi, KHSari buruzko literaturaren azterketa sistematikoa eta bibliometrikoa egin nahi dugu. Horrela, ebidentzia fidagarriagoak eta emaitza sendoagoak eskuratu nahi ditugu, ikerketa-joera nagusiak identifikatzea lortzeaz gain. Bestalde, gure asmoa da Espainiar Estatuko hirugarren sektoreko kirol-erakundeak aztertzea Gipuzkoatik. Ikusi dugu autonomia-erkidego bakoitzak araubide zehatzak dituela kirol-erakundeentzat, eta horregatik, interesgarria delakoan gaude erkidego bakoitzeko ñabardurak ezagutzea.

Ikerketa honetako emaitzak eta, oro har, ikerketa lerroa bera interesekoa izan daitezkeelakoan gaude hainbat lan-eremutan. Batetik, uste dugu ikergaia adierazgarria dela akademiako kirol-adituentzat edota ekonomia sozialekoentzat. Bestetik, administrazio publikoetako kirol-arduradunek ere ikasketak atera ditzaketela uste dugu, edozein izanda ere beraien eskuduntza-eremua. Azkenik, pentsatzen dugu KHSko erakundeetan diharduten kideentzat ere ikerketa-lerro erabilgarria izan daitekeela, edo horrela beharko lukeela.

Aintzatespena

Lan honek Gipuzkoako Foru-Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz 2024-2025 lehiaketa bidezko deialdiaren finantzaketa jaso du.

Erreferentziak

- Chaves, R. (2017): «El tercer sector deportivo». Chaves, R., eta Zimmer, A. (Eds.). *El tercer sector en España y en Europa: crisis, barreras en su desarrollo y estrategias de resiliencia en los sectores de la acción social, la cultura y el deporte*. Publicaciones de la Universitat de València, Valencia.
- Chaves, R. eta González, A. (2018): «El tercer sector deportivo de la Comunitat Valenciana». Monzón, J.L., Chaves, R. y Julia, J.F. (Dir.): *Libro blanco de la economía social de la Comunitat Valenciana*, CIRIEC-España, Valencia.
- Chaves, R., eta Monzón, J. L. (2020): *Libro blanco de la economía social y del tercer sector en la Comunitat Valenciana*. Centro Internacional de Investigación e Información sobre la Economía Pública, Social y Cooperativa, CIRIEC-España.
- Cuchi, J. M. (2005). La distribución competencial del deporte: una visión desde el derecho comparado. *Revista Jurídica de Deporte y el Entretenimiento*, 15. liburukia 219-240 or..
- Díaz de Junguitu, A. (2013): *Regulación empresarial voluntaria y medio ambiente: análisis de la adopción de ISO 14001 en las organizaciones de la CAPV*. [Doktorgo tesia]. Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). <http://addi.ehu.es/handle/10810/12200>

- Foncea, M. D. eta Marcuello, C. (2012). Empresas Sociales y Evaluación del Impacto Social. *CIRIEC Esp., Rev. jurid. econ. soc. coop.*, 75. liburukia, 179–198 or. https://zaguan.unizar.es/record/129516/files/texto_completo.pdf
- García, I. (2006): El método cualitativo aplicado a la investigación medioambiental: grupos de discusión y entrevistas. In *Medio ambiente y sociedad. Elementos de Explicación Sociológica* 173–213 or.. Thomson.
- González, A. (2023): *El impacto del tamaño de los clubs deportivos en su financiación. Un análisis cuantitativo en la Comunitat Valenciana*. [Doktorego tesia]. Universitat de València.
- Ibsen, B., Nichols, G., eta Elmoose, K. (2016): *Sports club policies in Europe*. Centre for Sports, Health and Civil Society University of Southern Denmark.
- Lera-López, F., eta Lizalde-Gil, E. (2013): Spain. In K. Hallmann eta K. Petry, *Comparative Sport Development: Systems, participation and public policy*. 149-166 or.. Springer.
- Pérez de Mendiguren, J. C., Etxezarreta, E., eta Guridi, L. (2009): *Ekonomia soziala, enpresa soziala eta ekonomia solidarioa: kontzeptu ezberdinak eta eztabaida berbera*. (1 zenbakidun txostena). Ekonomia Sozialaren Paperak.
- Puga, E. (2018). *El efecto de la crisis en el deporte federado español y su realidad a nivel europeo*. [Doktorego tesia]. Universidad de Jaén. <http://ruja.ujaen.es/jspui/handle/10953/997>
- Salamon, L. M., eta Anheier, H. (1997): *Defining the nonprofit sector*. The Johns Hopkins University.
- Scheerder, J., Willem, A., Claes, E., eta Billiet, S. (2015): International study on the organisation of sport in twelve countries and their policy towards sport federations: country profiles. *Leuven: University of Leuven - Policy in Sports & Physical Activity Research Group.*, 2. <https://www.kennisbanksportenbewegen.nl/?file=4181&m=1428067978&action=file.download>
- Solar, L. V. (2022): Definiendo «Deporte» (Poniendo puertas al campo). [Blog bateko sarrera]. *Federación de Asociaciones de Gestión del Deporte de España*. <https://www.fagde.org/revista-fagde-33/definiendo-deporte-poniendo-puertas-al-campo?elem=286529>
- Sutula, V. O. (2018): Generalizing the Definition of “Physical Culture”. *Journal of Physical Fitness, Medicine & Treatment in Sport*, 2(3), 1-3.
- Teruelo, B. (2012): *El valor transversal del deporte para todos*. <https://silo.tips/download/el-valor-transversal-del-deporte-para-todos>